

Gizarte arloko Topaketak / Encuentros de Acción social
Adinekoen eskubideez jabetzea zahartzen ari den Bizkaia batean
Tomar conciencia de los derechos de las personas mayores en una Bizkaia que envejece
Bilbon, 2014ko ekainaren 13an

AHALDUNTZEA ZAHARTZAROAN

Imanol Zubero

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

CIVERSITY ikerketa taldea. <http://civersity.net>

Zahartzearen dimentsio soziopolitikoari erreparatuz gero, erraza da honela formula dezakegun ideia-asoziazio bat planteatzea: zenbat eta zaharrago, orduan eta aktibismo sozial txikiagoa eta kontserbadurismo politiko handiagoa. Ekuazio horretaz balio-judizio ezberdinak egin ditzakegu, positiboagoak edo negatiboagoak, baina gutako gehienak ados egongo gara berarekin, funtsean. Izan ere, pentsa dezakegu, asoziazio garbia, naturala, zentzuzkoa da: zahartzea moderazio politikoari eta eremu publikoko jardueren murrizpenari lotuta egon da beti.

Baina, hala da? *Zahartzea/pribatizazioa/kontserbadurismoa* erlazioari begiratzean, ahazten dugu gizarte guztietan adineko pertsonak daudela (batzuetan oso zaharrak), konpromiso soziopolitikoaren dutenak, oro har, edo gizarte eraldaketaren aldeko apustua egiten dutenak, kasu batzuetan, modu harrigarrian. Gogora ditzagun Dolores Ibarruri, Juan Ajuriagerra, Santiago Carrillo edo Manuel Fraga; Rosa Regás, José Luis Sampedro, José Saramago edo Ernesto Sabato; Enrique Miret Magdalena edo Teresa de Calcuta; Nelson Mandela... Haiek guztiak, eta beste asko, 70 urtetik gorakoak dira (kasu batzuetan askozaz ere zaharragoak), eta halere ez diote utzi beren inguru soziopolitikoan oso modu aktiboan parte hartzeari.

Gogora ekar dezagun azken urteetako aldarrikapenik ezagunenetako bat, "¡Indignaos!", Stéphane Hesselek egin zuela, 1917an jaioa.

Zergatik da garrantzitsua adineko pertsonen parte hartze soziopolitikoak?

Adina ez da aldagairik garrantzitsuena gure gizarteetan partaidetzaren intentsitatea azaltzeko orduan. Ez da egia adineko pertsonak ez direnik hain aktiboak sozialki eta politikoki beren adinaren ondorioz. Are gehiago, kasu batzuetan (lan boluntarioa) gazteak baino aktiboago izatera irits daitezke. Parte hartze soziopolitikoak azaltzeko orduan, zenbait aldagai (egoera soziopolitikoak, kapital soziala, hezkuntza maila edo generoa) eraginkorragoak dira adina baino.

Aitzitik, gogoratu behar dugu, "gutxiengo etnikoek, gazteek edo emakumeek ez bezala, adineko pertsonak ez dutela sortu identifikazio-mugimendu kolektiborik" (Dubet eta Martuccelli). Egia da. *Botere grisaren* kontua (Gil Calvo), oraindik ere, lan-hipotesi erakargarria baino ez da edo, asko jota ere, errealitate politiko aktibo bihur daitekeen aukera bat.

Hemen sor daitezke arazoak. Adineko pertsonen jardun soziopolitikoak herritar baten aukera indibiduala baino ez denean, iritzi, mobilizazio eta erabaki korrante orokorren mende geratuko da, eta azkenean lausotu egingo da. Horrela, gazteek, emakumeek edo beste kolektibo batzuek parte hartze soziopolitikorako moduak eta erak aukeratzen dituzten bezala (batzuetan norbanako gisa eta besteetan nortasuna duen talde batean), adinekoak ez dira nortasun propioa duen talde bateko kideak.

Ondorioz, eta gazteen edo emakumeen kasuan ez bezala, ikus dezakegu gaur egun ez dagoela adineko pertsonen eragile politiko antolaturik, beharrezkoa denean beraien bandera altxatzeko. Adineko pertsonen arazoek ez daukate erreferentziazko kolektibo argirik, arazook bere egiten dituenik.

Egoera horren ondorioz, nik *identifikatutako parte hartze ezaren gurpil zoroa* esaten diodana sorraraz daiteke: a) adineko pertsonak ordezkatzeko dituen ahots kolektibo baten gabeziak b) pertsona horiek agertoki publikoan eragina galtzea ekar dezake, eta c) horrek ekar dezake adineko pertsonen aldarrikapenak ahultzea edo kontuan ez daitezela hartu, eta beraien errealitatea ezkutatzeko (agenda-efektua, alderantziz). d) Egoera horrek pertsona horien artean etsipena eta arduragabekeria elikatuko lituzke ("ez digute kasurik egiten"), eta horrek e) beraien presentzia publikoa gehiago ahulduko luke. f) Eta abar.



Horregatik, ez da bakarrik adineko herritarren norbanako partaidetza bultzatu behar, baizik eta parte hartze kolektiboa. Zentzu horretan, Ofecum (Adineko unibertsitarioen kultur eskaintza) eta Hartu-Emanak (adineko pertsonen

ikaskuntza iraunkorrerako eta gizarte parte hartzerako elkarte) elkarteek egin duten lana nabarmendu behar dugu: Espainiako *Adineko pertsonen elkarte txiki eta ertainen liburu berdea* koordinatu dute.

Zehatzago esateko, gizarte eskubideen aldarrikapen hutsetik gizarte botereen eraikuntza estrategia berri batera igaro beharko ginateke. Gizarte eskubideak defendatzeko edo gauzatzeko politikek ahultasun handia daukate gaur egun. "Eskubide sozial" bat herritarrek dituzten interes jakin batzuen kudeaketa-lana estatuari esleitzea baino ez da. Baina estatuak gizarte eskubideak kudeatzeari astindua eman dio globalismo kapitalistak, eskubide horiek ez dituelako onartzen, garapen ekonomikorako oztopo direlakoan. Gizarte bakoitzeko kolektiboen arteko interes-gatazkak ere kudeaketa hori kaltetu du.

Horregatik, adineko pertsonak ezin dute "eskubideak bereganatzeko" lana bakarrik egin (hau da, administrazioek gauzatzen dituzten gizarte ekintzako programak aldarrikatu). Horrez gain, *botere sozialak* eratzeko estrategia bati ekin behar diote, adineko pertsonak zahartze aktiboaren ideian eta errealitate horren definizioan parte har dezaten, hitzetatik ekintzetara joatea eragozten duten oztopoak gainditzen laguntzen duten politika publikoak bultzatzeko.

Nolako da adinekoen parte hartzea gizartean eta politikan?

Gai honi erantzuteko, dauzkagun ikerlanik berrienak hauek dira: *Adinekoen parte hartzea gizartean* (IMSERSO, 2008)¹ eta *EAEko adineko pertsonen parte hartzea gizartean* (EDE Fundazioa, 2013)². Bigarren lan horrek egiten duen laburpenari erreparatuz gero ondokoa esan dezakegu:

Parte hartzea politikan:

- EAEn, hauteskundeetako parte hartzearen tasarik handienak 65 urtetik gorako pertsonen artean daude, gizartearen osotasunaren aldean. Hala eta guztiz ere, pertsona horiek alderdi politikoetan eta bereziki sindikatuetan daukaten parte hartzea biztanleriaren batezbestekotik behera dago.
- Adineko pertsonak interes txikiagoa daukate politikan modu orokorrean hitz egiten denean (adineko hamar pertsonetatik lauk ez dute inolako interesik erakusten). Aitzitik, adineko pertsonak hurbilago sentitzen dira alderdi politikoetatik biztanleria orokorra baino; neurri txikiagoan definitzen duten euren burua apolitiko gisa.
- Adineko pertsonen artean parte hartze politikoko ekintzak mugatuak dira, batez ere euskal biztanleria osoarenekin konparatuz gero. 2011. urtean zehar, adineko pertsonarik gehienek egin zuten ekintza

¹ <http://www.imserso.es/InterPresent2/groups/imserso/documents/binario/11005partsocialmay.pdf>

² <http://www.fundacionede.org/ca/archivos/investigacion-social/participacion-social-mayores.pdf>

baimendutako manifestazioak egitea izan zen. Hori adineko pertsonen %12ak egin zuen, eta biztanleria osoaren %33ak.

- Baimendutako manifestazioetan parte hartzea eta aldarrikapenak egiteko eskaerak sinatzea, eta on-line eztabaida edo foro batean beren ikuspegia jakitera ematea da adineko pertsona gehienek parte hartzen duten jarduerak (%8; biztanleria orokorrak %13). Bestalde, adineko oso pertsona gutxik eman dute gai politiko bati buruzko iritzia komunikabide batean (%1ak).
- Hauteskundeetan botoa ematea ohikoagoa da jende zaharrenaren artean, baina parte hartzeko ekintza ez ohikoagoak ez daude oso presente adineko pertsonen artean, biztanleria osoarekin alderatuz gero. Gainera, adineko emakumeek parte hartze txikiagoa daukate ekintza politiko eta sindikaletan.

Parte hartzea gizartean:

- Borondatezko lanaz, zentzu zabalean, hitz egiten dugunean (borondatezko lana erakunde batean, beste familia batzuei modu ez formalean laguntzea, batzarrak etab), adineko pertsonen parte hartzea populazio osoarena baino askozaz ere handiagoa da (%29,2; biztanleria orokorrarena, %15,3).
- Gizarte erakundeen barruan egiten den lan boluntarioari bakarrik erreparatzen badiogu, adineko pertsonen %5,5ak honelako jardueretan parte hartzen du, eta gure erkidegoko boluntarioen %26,4 dira.
- Konfesio erlijiosoak dira adineko pertsonen artean ohikoenak. Haien atzetik, bazterketa egoeran dauden kolektiboak sustatzeko eta laguntzeko gizarte ekintzako erakundeak daude.

Aisian eta astialdian:

- Kirola eta aire libreko jarduerak ohikoagoak dira adineko pertsonen artean, euskal biztanleria osoaren barruan baino. Halere, egia da hamar pertsonatik lauk ez dutela inolako kiroltik edo jarduera fisikorik egiten. Jarduera fisiko oso aktiboak direnean, parte hartzen duten adineko pertsonen kopurua asko murrizten da.
- 65 urtetik gorako hamar pertsonatik seik bizitza sozialarekin eta dibertsioarekin lotutako jardueretan parte hartzen dute. Horrelako jarduerak egiten dituzten adineko pertsonen portzentajea handiagoa da biztanleria orokorrarena baino. Halere, adineko pertsonak bizitza sozialari eta ondo pasatzeari dedikatzen dieten denbora txikiagoa da biztanleriak, oro har, ematen dutena baino.
- Euskal biztanlerik gehienek ez dute jarduera kulturaletan parte hartzeko ohiturarik, irakurketa, musika entzutea edo zinera joatea izan ezik. 65 urtetik gorako biztanleriak -oro har antzeko joera duenak- beste adin-

talde batzuek baino ohitura txikiagoa du aisialdiko liburuen irakurketan eta kultur eskaintza osatzen duten jardueretako askotan parte hartzen (liburutegia, erakusketak, antzerkia, zinea eta abar).

Nolanahi ere, euskal gazteen arteko jarduerarik ohikoenak zeintzuk diren galdetuko bagenu, ez ote lirateke izango adineko pertsonak dituzten berak, ia ordena berean eta ehunekoen banaketa berdintsuarekin? Erantzuna baiezkoa da. Gure gizartean, aktibismo soziopolitikoaren ahultasuna (betiere erlatiboa, betiere baloragarria) adinaren aldagaiari neurri txiki batean bakarrik lotzen zaio. Ahultasun horren azalpen nagusia arrazoi estrukturaletan dago.

Orain arte esandakoak susmagarri bihurtzen du adinekoen parte hartze soziopolitikoari buruz "senak" esaten digun edozein aurreiritzi. Zahartzearen, bizitzaren pribatizazioaren (hau da, eremu publikoa uztearen) eta pasibotasun soziopolitikoaren arteko erlazioak, ustez "naturala" denak, ñabardura asko behar ditu.

Baina gainera, gai horri heltzen diogunean, ezinbestekoa da adinari naturaren egitate bati bezala begiratzeari uztea. Natura da, noski, biologia da. Baina egitate historiko eta soziala ere bada. Zaharra izatea ez da erraz identifika daitekeen zerbait, beti berdina dena nonahi eta noiznahi.

Zer da gaur nagusia izatea?

1967an, Paul McCartneyk "When I'm Sixty Four" (64 urte ditudanean) izeneko abestia idatzi zuen. Bere aitari dedikatutako abestia zen. Abestiaren hitzek abeslariak (eta ziurrenik orduko gizarteak) adin horretako pertsonen irudia erakusten digute:

Zahartzen naizenean eta ilea galtzen dudanean, urte asko barru.
Oraindik ere San Valentinen txartela bidaliko didazu,
urtebetetzean zorionduko nauzu edo ardo botila bat bidaliko didazu?
Beharko nauzu, elikatuko nauzu, 64 urte ditudanean?
Fusible bat konpontzen lagundu nezake.
Zuk jertse bat egin zenezake tximiniaren ondoan,
igande goizetan buelta bat ematera joan.
Lorategia txukundu, belar txarrak kenduz.
Nork eska lezake gehiago?

Suaren ondoan jertse bat egin, lorategia txukundu, paseatu, etxean konponketaren bat egin... horiek omen ziren erretiroaren atarian zegoen pertsona batek egin behar zituen gauzak. Inolako zerikusirik ez gizartean parte hartzearekin. Adinekoen protagonismo politiko eta sozialaren arrastorik ez.

Bada: Beatlesek "When I'm Sixty-Four" idatzi eta abestu zuen gizonak 64 urte bete zituen 2006ko ekainaren 18an. Zer pentsatuko ote luke Paul McCartneyk abesti hori idatzi zuenean bere aitak zuen adina bete zuen momentuan? Ez

dakigu. Baina badakigu zer ez zen gertatu: ez zen suaren ondoan eseri, ez zen bere lorategian geratu, ezta igande goizetan paseo laburrak egin.

Gai honi buruz ari garenez, hona hemen nonbait irakurri dudan pasadizoa: McCartney, behin batean, adineko pertsonen klub batean jo ohi zuen piano jotzaile batekin aurkitu zen, ustekabean. "Espero dut zuri axola ez izatea", esan zion piano jotzaileak, "baina zure abestiak jo ohi ditut, eta maitatuena *When I'm sixty four*" da. "Eta bada beste gauza bat", gaineratu zuen piano jotzaileak: "Bertsio bat egiten dut. Nire publikoak jada ez ditu 64 urte beteko. Horregatik *When I'm eighty four* [84 urte ditudanean]" abesten dut". Eta hau erantzun omen zion beatle ohiak: "Abestia orain idatziko banu seguruenik *When I'm ninety four* [94 urte ditudanean] izango litzateke".


Pasadizo bat baino ez da, baina uste dut oso ondo azaltzen duela hiru hamarkadatan gertatu den aldaketa. Adineko pertsonaren definizioa aldatu da, baina pertsonak gaur egun nagusiak izateaz duten esperientzia ere aldatu da. Nagusiak gara (sakoneko zentzuan, ez bakarrik kronologikoki) 64 urte ditugunean? Ba ez, gehienetan ez. 84 urterekin bai. Eta agian laster 94rekin.

Nagusi izatearen esanahi pertsonal eta kolektiboa une historikoari eta gazte izan garen egoerari lotuta dago. Ez da gauza bera 1920an gazte izan ondoren nagusia izatea, eta 1960an gazte izan ondoren nagusia izatea.

Adina eraikuntza soziala da

Adinak bi dimentsio dauzka: bata biologikoa eta bestea soziala. Bigarren ikuspegi horretatik, adina eraikuntza sozial bat da. *Ageism in Europe* txostenaren arabera (EURAGE, 2011), pertsona bat "zahartzat" jotzen hasten garen unea oso ezberdina izan daiteke Europako herrialde batetik bestera: Grezian 68,2 urterekin eta Erresuma Batuan 59 urterekin. Espainiaren kasuan, 62,1 urterekin. Horrek esan nahi du zahartzearen kultura ezberdinak daudela.

Figure 3 Perceived start of old age in ESS countries (mean estimated age)



Gil Calvok ederki esaten duenez, adineko pertsonen ezaugarritzat dauzkagun asko ez dira adinaren eraginez azal daitezkeen efektuak, baizik eta belaunaldi jakin bateko kide izatearen ondorio. Gaur gazte direnak zahartzen direnean, ez dira gaurko zaharrak bezala zahartuko. Era berean, gaur egungo zaharrak oso ezberdinak ziren beraien gurasoak zaharrak izateko zuten modutik.

Estereotipoei buruzko gauzarik txarrena beraiek sinestea da

Adinaren araberako jokabideek eragina izan dezakete kolektibo horri arreta eman behar dioten erakunde publiko edo pribatuek jendea tratatzeko duten moduan. Gizarte zientzietan "Pigmalion efektua" deritzogu. Adineko pertsonak umeak bailiran tratatzen ditugu batzuetan. Hori egoitzetan edo adinekoen zentroetan oso ohikoa da. Adineko pertsonak umeak bezala edo paternalismoz tratatuz, ebaluazio eta esku hartze prozesuetarako kaltegarri izateaz gain, adineko pertsonen mendetasunezko jokabide edo jarrerak mesedetzen dira, konturatu gabe, eta adineko pertsonen isolamendua edota depresioa bultzatzen dira. Arrazoi handia dute Subiratsek eta Pérez Salanovasek hau idaztean:

Kontakizun orain arte hegemonikoaren gabeziak eta estutasunek adineko pertsonen definizio hau eman dute: pertsona ahulak, arreta behar dutenak, ulermen eta mugikortasun arazoak dituztenak, aisialdi eta plazer aukera gutxikoak, inproduktiboak, eta beren egunak mendeko pertsonetan espezializatutako egoitza batean eman beharko dituztenak. Gauzak horrela, ez da arraroa pertsona-kolektibo zabal honentzat egiten diren politika publikoak zaharkiturik egotea eta politika horien hartzaileen gustukoak ez izatea. Pertsona hauekin dauzkagun pertzepzio horiek birpentsatu behar ditugu. Pertsonak beren osotasunean berrosatu behar ditugu, arazoan eta erantzunen zatikapena gaindituz. Adineko pertsonak umetzat hartzea eragotzi behar dugu (autonomia funtzionala oso mugatuta daukaten pertsonen ez diegu autogobernua ukatu behar) eta urrezko aroaren ilusioa suntsitu behar dugu (ez delako erreala eta gutxi batzuek bakarrik bizi ahalko dutelako). Errealitate hori birpentsatzeko modua herritartasunaren kontzepzio oso batetik abiatu behar da, denok barnean onartzen gaituena, edozein adin, genero edo jatorri dugula ere.

Are txarrago, batzuetan, adineko pertsonak gizartean nagusitu den irudi negatiboa bereganatzen dute eta irudi horren arabera, adineko pertsona batek egin behar duena eta egin behar ez duena adierazten duena, portatzen dira. "Bera bakarrik betetzen den profezia" da hori soziologian. Adineko pertsonak egin dezaketen txarrena gizartearen estereotipo eta aurreiritzietara makurtzea da.

Zentzu horretan, interesgarria da *Los mayores gamberros* telebistako saioa. Bertan, adineko pertsonen talde batek ezustekoak ematen ditu kalean, beraiangandik espero ez den moduan jokatzeko dutelako. Hau da, zahartzaroaren estereotipoak hautsiz jokatzeko dute. (Halere, baditu alderdi

kritikagarriak ere: estereotipoak txantxaren ikuspegitik tratatzeak sinestaraz dezake horrela portatzen diren adineko pertsona horiek telebistarako jokatzen dutela horrela, ez benetan horrelakoak direlako). Askozaz ere esanguratsuagoa da, estereotipoak hausteko orduan, *yayoflautas* izeneko fenomenoak.

“Zahartzaroa baino lehen, ondo bizitzen saiatu nintzen; zahartzaroan ondo hiltzen saiatzen naiz” (Seneka). “Gaixotasuna zahartzaro goiztiarra da, eta zahartzaroa gaixotasun iraunkorra da” (Platon). Platonen eta Senekaren garaietan hala zen, zalantzarik gabe, eta seguruenik hala izaten jarraitzen du planetako txoko batzuetan. Baina gurean ez. Gure artean zuzenagoa da Brucknerren gogoeta (1996): “Adina, dagoeneko, ez da epaia guretzat. Dagoeneko ez dago muga bat, zeinetatik aurrera gizakia iraungitzen den. Gaur egun edonork has dezake bizitza berriro ere berrogeita hamar edo hirurogei urterekin, norberaren patua azken unera arte aldatu, eta adimenez eta gorputzez ondo dauden pertsonak baztertzen dituen erretiroaren ezbeharrari buelta eman”.

Zahartze aktiboa faktore estrukturalen mende dago

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) *zahartze aktiboa* honela definitzen du: osasun, parte hartze eta segurtasun aukerak hobetzeko prozesua, pertsonak zahartu ahala bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. *Aktibo* hitzak jarduera sozial, ekonomiko, kultural, espiritual eta zibikoetan parte hartze iraunkorra izateari dagokio, ez bakarrik fisikoki aktibo egoteari edo lan-merkatuan parte hartzeari.

Zaharra izateak ez du inola ere esan nahi adineko pertsonak herritar izaera galtzen dutenik. Beraien premia eta gaitasun guztiak hor daude oraindik, nahiz eta batzuk adinak baldintzaturik egon. Baina inork ez du herritar izatetik erretiroa hartzen.

Gertatzen dena da zahartze berriak gaur egun eskaintzen dituen aukerak aktiboki gauzatu ahal izateko ez dela nahikoa aukera horiek formalki aitortzea; aitzitik, baldintza material batzuk ere bete behar dira. OMEak zahartze aktiboaren zazpi baldintzatzaile ematen ditu, zahartze aktiboaren aukerak baldintzatzen dituztenak (batzuetan, aukera guztiak zapuztu arte):

1. Zeharkakoak: kultura eta generoa.
2. Jokabidezkoak: ohitura pertsonalak.
3. Faktore pertsonalei lotutakoak: biologia eta genetika, faktore psikologikoak.
4. Ingurune fisikoari lotutakoak: etxebizitza eta hiri espazioak.
5. Osasun sistemiei eta gizarte zerbitzuei lotutakoak.

6. Ingurune sozialari lotutakoak: gizarte babesa eta gizarteratzeko aukerak.
7. Ekonomikoak: sarrerak eta proiektio soziala.

Zahartze aktiboaren kontuarekin, ez da nahikoa hura aldarrikatzea, nahiz eta hori ere garrantzitsua da. OMEk zahartze aktiboaren baldintzatzaileekin egin duen zerrendari erreparatuz gero, ikusiko dugu baldintzatzaile horietako batzuk pertsonalak direla, ezaugarri biologiko eta psikologikoei lotuak ("naturalak" beraz), baina gainerakoak ekonomikoak eta sozialak direla.

Horrek esan nahi du ez dagoela aktiboki zahartzeko aukerarik, oinarrizko zerbitzu eta eskubideak ziurtatzeko gutxieneko bermeak ematen ez badira (etxebizitzan, sarreretan, hezkuntza iraunkorren, osasunean eta abar). Eta hor sartzen da adineko pertsonen parte hartze sozial eta politikoaren auzia.

Adinkeriarekin arrazakeriarekin bezala gertatzen da: gure gizartean, bazterketek sakoneko arazoa estaltzen dute, hau da, bazterketa sozioekonomikoa. Arazoa ez da atzerritarra, atzerritar pobrea baizik. Berdin gertatzen da zaharrekin. Ikerketa askok lotzen dituzte gizarte bazterketa eta pertsonen zahartzeko duten era. Guztien ondorioa da erlatiboki pobreak diren pertsonak (hezkuntza mailagatik eta egoera ekonomikoagatik) txarrago eta azkarrago zahartzen direla. Haietako gehienek gorputz ezintasuneko, gizarte isolamenduko eta ondoez psikologikoko maila handiagoak izaten dituzte. Pobretzen dira eta benetan zahartzen dira, posizio sozial hobea duten pertsonak baino gehiago.

Gizarte zientziek egindako aurkikuntza horiek osasunaren zientzietan egindako ikerketek berresten dituzte. Klase xumeetako pertsonak azkarrago zahartzen dira estatus sozial altuagoa dutenak baino.

Gure adinkeriako estereotipo baztertzailak ere adineko pertsona txiro edo ezjakinaren inguruan eraikitzen dira. Horregatik, estereotipoei aurre egitea ez da bakarrik prestakuntza edo informazio ekintzen kontua, baizik eta politika ekonomiko eta sozialena eta berdintasun politikena.

Baina eskubideak ez dira zahartzen. Motak eta Paniaguak salatu dutenez, adinkeria argudio morala da, adineko pertsonen herritar izaera kentzen diona: "Badirudi zahartze "sozialak" oinarrizko eskubide sozialak baztertzatzen dituzten egoerak legitimatzen dituela, eta pertsonak, erretiratuta egoteagatik edo narriadura fisiko edo psikologikoko egoeretan egoteagatik, herritartasuna gauzatzea bermatzen duten gizarte baliabideak gabe geratu ahal direla". Horregatik, ondorioztatzen dute, "adineko pertsonentzako gizarte politiken interpretazioaren erdigunean herritartasunaren kontzeptua kokatzeak adin guztiak barnean hartzen dituen kultura zibikoa izatea eskatzen du".

Horregatik, eta ondorio gisa, "zahartzaroan ahalduntzeko" modu eraginkor bakarra "hautzarotik ahalduntzea" da: herritartasun aktibo eta ahaldunduan hezteko, bizitzako une bakoitzean bizitza osoagoa izateko dauzkagun gaitasunak erabiltzen jakiteko, bai banaka bai taldean.